

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

2017KO MARTXOAREN 8A

Nazioarteko egunak aldarrikapenerako egunak izaten dira, eta desorekak agerian uztekoak ez ezik, proposamenak egitekoak eta borrokarakoak, egin beharreko aldaketei dagokienez.

Emakume langileak borrokan ari zireneko testuinguruan dago kokatuta martxoaren 8a. Ehungintzan estu eta ezin ikusizko lanean ziharduen emakume-talde bat 1908an grebara joan zenean eta EEBBetako hainbat hiritan manifestazioak egin zituenean eman zitzaion hasiera borrokaldiari.

Ordutik hona, emakume eta gizon ugariri esker, eta borroka feministari esker, askok egin dituzte emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko urratsak.

Ingururik hurbilenean, alegia, Euskal Herrian, lege eta araudietan berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarrita dago, egiteko asko badago ere; eta tokiko gobernuei eskatzen zaie beharrezko neurri eta estrategiak har ditzaten, erabakiak hartzeko gune guztietan emakume eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko.

Besteak, beste, Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan honako hau ezartzen da: *“Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatu etako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.”* Halaber, lege horretan aipatzen da emakumeen eta gizonen presentziak orekatua izan behar duela profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan. Horretarako, Euskal herri-administrazioek gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeoi adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak; eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak.

Udalgintzan, EAEko udaletako % 24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren % 18,82 ordezkatzeko dute. 2015ean, alderdi politikoek % 32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan % 22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politikean.

Soldaten egiturari buruzko urteko inkestaren arabera, emakume langileen urteko soldata gordina gizonekoena baino % 24 baxuagoa izan zen, hau da, soldaten arteko aldea % 24koa da. Gizonen soldata bera izateko 79 egun gehiago lan egin beharko genuke; eta pentsioei dagokienez, aldea % 40koa da.

Gogora ekartzekoa da ezin bizi daitekeela demokrazian emakumerik gabe, eta halaber, maila guztietan hartu behar direla neurriak (toki mailan, eskualdean, estatuan eta Europan), emakume eta gizonen parte-hartzea parekidea izan dadin, erabakiak hartzeko prozesuetan.

Egoera horren jakitun, Pasaia Udalak Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako konpromiso hauek hartzeaz gain:

1.- Pasaia Udalak agintzen du Pasaia garapen jasangarriaren alde egingo duela, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko benetako konpromisoa hartuz, eta berdintasuna gobernagarritasunaren printzipio bilakatuz.

-Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikotan izan ezik).

-Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.

-Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.

-Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.

-Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

2.- Pasaia Udalak hitzematzen du emakumeen autonomiaren aldeko bideak sortuko dituela, eta balio patriarkalak eraldatu egingo dituela, bizitzarako jasangarriak diren balioak bihurtuz. Besteak beste, alor honetako ekintzak hauek dira

- Ahalduntze-eskola indartzea, eta udalerriko emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoan taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.

- Pasaia festetan eta ospakizunetan parte-hartzea parekidea izan dadin garatze-eta sustatze-saioak egitea, udalerriko elkarteekin batera.

- Bermatzea bete egingo direla "Pasaian kirol arloan emakume gazteen parte-hartzea sustatzeko proposamenak" izeneko txostenean jasotzen diren neurriak.

3. Udalak agintzen du erro-errotik kenduko duela indarkeria matxista Pasaian, eta politikoki lehentasunezko joko duela, Pasaia herri segurua eta indarkeria matxistarik gabekoa izan dadin. Honako ekintza hauek landuko dira, besteak beste:

- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeak artatzeko erakundeen arteko elkarlanerako protokoloa onartzea, eta berdintasunaren mahaian lanean jarraitzea, herriko emakume, gizarte-eragile eta feministekin elkarlanean.

- Gazteen artean sexu-heziketari buruko hausnarketa bultzatzea, eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan indarkeria matxista saihesteko programak sustatzea.

Horiek horrela, Pasaia Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu emakumeek eta udalerriko elkarteek lau barrutietan antolatzen dituzten jarduerak eta elkarretaratzeetan parte hartzea.

Pasaian, 2017ko martxoaren 8an